

Herririk Herri |2|

Bilboko manifestazioetara joateko deia egin dute sindikatuek Maiatzaren 1erako



Berbaz |10|

J.L. Navarro: "Hauteskunde programako egitasmo gehienak onartzea lortu dugu"

Kultura |12|

Platerueneko DF Bertsozale Eskola, maiatzeko lau eguenetan, hirugarrenez

Astelehenean zabalduko dute anbulategi berria Atxondon

- > 160 metro karratu, itxarongela bi eta lau kontsulta gela izango ditu osasun zentro eraberrituak
- > Joan zen urteko urrian hasi zituzten lanak eta 190.000 euroko aurrekontua izan dute

3

Gerediagak 1.509 baserriri buruzko datuak sareratu ditu

Durangaldea • Orain 10 urte egin-dako ikerketa bat oinarri hartuta, Gerediaga elkarteak 1.509 baserriri buruzko fitxak sareratu ditu bere webgunean. Sortze-data, ohar arkitoniko-historiko eta bestelako erreferentziez gainera, satelitetik ateratako argazkiak ere batu dituzte. Jendeak kontsultak egin ahala, baserrien gaineko datu basea gaurkotzea ere badute helburu.

2

Areto futboleko hegemonia inoiz baino lehiatuago

KIROLA • Durangaldeko areto futbolaren erreferente izaten jarraitzeko Sasikoak inoiz baino lehia gogorragoa izango du datorren urtean. Maila galdu duenez, Nazional B mailan ariko da, eta hantxe jokatzeko du Elorriokok ere; aurretik elkar ezagutzen duten talde biei gonbidatu berria gehitu zaie: Mallabia.

15



Kepa Aginako

Dantzaren agertoki izango da Durango asteburu honetan

Durango • Dantzaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, hainbat erakustaldi izango dira asteburuan. Esaterako, Kriskitin dantza taldeak Andra Marian eta Udaletxeko plazan jardungo du. L'atelier taldeko ballet taldeek San Agustinen erakutsiko dituzte euren ikuskizunak, eta Ezkurdi plazak eta Plateruenak Flashmob erakustaldiak hartuko dituzte.

13

• Abadiño

Langileak "nahierara" kontratatu izana leporatu diote alkateari

5

• Iurreta

Urtebete 4.000 litro olio batu dituzte birziklatzeko ontzietan

7

• Elorrio

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia onartu dute

8

• Durango

2013an prest izango dira zozketatutako 58 bizilekuak

4

BATXILERGOAK 2011-2012
ZATOZ GURERA!! - INFORMA ZAITEZ

Tel.: 94 681 00 50
www.durangajustiziarako.org
www.egunagazdantzaren.org
Kamitaga 1 - DURLANDE

Justiziarako kultura erakitzeko

HERRIRIK HERRI >

■ **DURANGALDEA**



Atxondoko baserrien fitxak, esaterako, 147 dira.

1.509 baserriren fitxak Gerediagaren webgunean

Beste hainbat informaziogaz batera, eskualdeko baserriei buruz duela 10 urte egindako ikerlaneko datuak daude www.gerediaga.com atari berrituan

Abadiñoko 270 baserri, Eloorriko 229, Berrizko 209, Iurretako 157... guztira, 1.509 baserriren fitxak ikusi daitezke aste honetatik aurrera Gerediaga elkartearen webgune berrituan. Duela hamar urte batutako informazioa ipini dute eskuragai, eta, azaldu dutenez, "jendeak kontsultatu ahala ekarpenak jaso eta datu basea gaurkotzea" da asmoa.

Baserriak on-line izeneko atalean baserriak bilatu daitezke eta argazkiaz gainera, fitxetan, sortze data, ohar arkitektonikoak, historikoak eta bestelako erreferentziak ikusi daitezke. Satelitek ateratako argazkiak ere baditu Gerediagaren webgune berriak,

baserriak airetik ikusitako irudietan errazago lokalizatzeko.

Baserrien datu-basea 2000 eta 2001 urteetan osotu zuten, Alberto Santana historialariaren zuzendaritzapean, Estibaliz Aldekoa-Otalorak eta Txelu Angoitiak. Webgunea berrituzakoan, "informazio hori sareratzeko aukera" ikusi dutela azaldu du Aitziber Atorrasagasti Gerediaga Elkarte-ko kudeatzaileak.

Durangaldeko baserrien arkitektura aztertu zuen Alfredo Baeschlinek; Astolan bere izeneko plaka berritu dute

Alfredo Baeschlin

Eguenean, Gerediaga elkarteak Alfredo Baeschlin arkitekto suitzarra omentzeko ekitaldia egin du. 1926 eta 1927 urteetan Abadiñon bizi izan zen Baeschlin eta eskualdeko baserrien arkitekturari buruzko lehen idatziak bereak dira. Abadiñon bizi izan zen kaleak bere izena du, Baeschlinen omenez.

Astolako San Bixente ermitan Gerediagak plaka bat ipini zuen 1984an, arkitekto suitzarraren omenez. Ordutik plaka hori birritan apurtuta agertu da, eta egunean, Baeschlin jaio zela 128 urte bete direla-eta, eguna gogoan hartuta plaka berritzeko ekitaldia egin du Gerediagak. ■ A. Ugalde

Sindikatuak etzi Bilbora joateko deia egin dute

EAEko hiriburuetan kontzentratuko dituzte Maiatzaren 1eko ekimenak sindikatuak

Maiatzaren 1ean Langileen Nazioarteko Eguna dela-eta, Durangaldeko sindikatuak ordezkariek Bilbora joateko deia egin dute, han abiatuko diren manifestazioetan parte hartzeko.

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU-k osatutako gehiengo sindikalak domekan 11:30ean hasiko du manifestazioa Bilboko Jesusen Bihotzetik: "Geure politika laboral eta sozialak erabakitze-ko ahalmena eta horiek gauzatzeko tresnak behar ditugu; lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua aldarrikatzen dugu", adierazi dute.

UGT eta CCOO alderdiek ere toki eta ordu berean ipini dute hitzordua. Gehiengo sindikalaren manifestazioa abiatu ondoren hasiko da horien. Manifestazioan eramango duten pankartako leloak laburbitzen ditu sindikatu bien aldarriak: *Giza murrizketen aurka, enplegua eskubideekin.*

CNT ere Bilbon

CNT alderdiak ere Bilbon deitu du manifestazioa, 11:30ean, Kale Nagusitik abiatuta. "Iraultza sozial libertarioa" sustatzen dute, "gizartean desberdintasun ekonomikoak murriztu" asmoz. ■ J.D.

■ **ZALDIBAR**

204 bazkide berri egin ditu liburutegiak urtebete

Zaldibarko liburutegi berriak urtea bete berri du, eta ardura-dunek balantzea egin dute. Azaldu dutenez, dagoeneko, 902 bazkide ditu liburutegiak, iaz baino 204 gehiago. "Datu hauekin, hiru herriarretatik bat bazkide dela esan daiteke ia", diote.

Erabilera ere asko igo dela azpimarratu dute; %45eko igoera, hain zuzen ere. Maileguen kasuan, %42,9 igo da kopurua, plazaratu dituzten datuen arabera. Horretaz gainera, liburutegiko ordenagailu eramangarriak 610 lagunek erabili dituzte azaldu dute. ■ M.O.

Santamañezarren eroritako gudariak gogoan, Castet Egunean



1937ko apirilaren 25ean Santamañezarreko tontorrean hildako gudariak oroitu dituzte aurten ere, Castet Egunean. Urtemugaz batera ibilalditxo egin zuten argazkiko herriarrek, behelainoa arerio izan arren. Tontor horretan hil ziren 40 bat gudariak ez eze, "Euskal Herria eta askatasunaren alde borrokan jausitako guztiak" ekarri zituzten gogora Zaldibarren. ■ M.O.

momotx
taberna
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

goizeko 08:00etatik
gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

CENTRAL FORESTAL
35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit
Nervión
Inueekin egin daitezkeen paperak onenak

Smurfit
ibersaac
Eta azkenik, paperezko zokurik ederrenak

ATXONDO

Anbulategi berria zabalduko dute datorren astean

160 metro karratu, itxarongela bi eta lau kontsulta gela izango ditu

Urritik beharrean ibili eta gero, astelehenean zabalduko dute ambulategi berria Atxondon. Lehenago 90 metro karratu zituen ambulategia txiki geratu zela-eta, handitzeko beharrra egin dituzte, eta datorren aste-tik aurrera lau kontsulta gela izan-go dituzte atxondarrek.

Anbulategi berriak pediatria-ren gela, medikuntza orokorrera-

ko beste bat, erizaindegia eta sen-daketa-gela izango ditu.

Azken hile hauetan atxonda-rrak behin-behineko ambulategia

Lau gela izango ditu:
erizainena, medikuntza
orokorrekoa, pediatriakoa
eta sendaketetakoa

izan dute udaletxe alboko lorate-gietan. Orain, berriz, astelehe-netik aurrera, behin betiko lokalera mugituko dituzte Osakidetzako zerbitzuak.

Osasun zentroa handitzeko lanek 190.000 euroko aurrekontua eduki dute eta beharrak egin ahal izateko posta zerbitzua eta libu-rutegia lekuz aldatu zituzten iaz-ko udazkenean. ■ A.Ugalde.



Anbulategiaren parean izan da hileotan behin-behineko kontsultategia.

Astelehenean hasiko dira berriro eskolako lanak

Jaurlaritzak lanak berriro abiarazteko agindu du

Udalak lursailen gaineko hainbat dokumentu aurkeztu eta gero, Hez-kuntza Sailak eskolako beharrekin jarraitzeko baimena eman du, proiektua moldatu eta gero. Mar-txoaren hasieratik egon dira obrak

geldituta, eta datorren astelehe-nean hasiko dira berriro lanean.

Lursailen inguruko zalantzak zirela-eta, udal arduradunek 1987an Euskal Herria kalean etxe-bizitzen kooperatiba sortu zene-

tik gaur egunerainoko eskriturak, erregistroko oharra eta katastro-ko dokumentuak aurkeztu dituz-te Jaurlaritzan. Hezkuntza Sailak obra moldatzea erabaki du, eta lursailen mugen artean bost metro-ko distantzia utziko dute.

David Cobos alkateak azaldu du udalak auzokideekin hartu-emanetan jarraitzeko asmoa dau-kala: "Gertatutakoa ikusita, gero-ra arazoak ez egoteko lursailen gai-neko kontuak argi utzi behar ditugu". ■ A.U.

BERRIZ

Santiago Bideko beste etapa bat egingo dute, maiatzaren 28 eta 29an

Santo Domingo de la Calzada eta Agés artean egingo dute ibilbidea, Beloradotik pasatuta

Berrizko Udalak bultzatuta San-tiago Bideko etapa berri bat osa-tuko dute maiatzaren 28 eta 29an, Santo Domingo de la Calzadan hasi, Beloradotik pasatu eta Agés herrian amaituz. Maiatzaren 20a baino lehenago izena emateko deialdia egin dute antolatzaileek.

Asteburuko plana izango denez, bidaia, ostatua eta gosa-ria sartuko dira eskaintzan. Maia-tzaren 28an goizeko 08:00etan ipini dute irteerarako hitzordua, eta hurrengo egunean bueltatu-ko dira Berrizera, arratsaldeko 19:00ak aldera. Guztira, 63 euro

ordaindu beharko dute parte-hartzaileek. Kiroldegian eman behar dute izena interesatuek, maiatzaren 20a baino lehenago. Kopuru mugatuko taldea izango dela gogoratu dute arduradunek.

Asteburuko plana denez, bidaia, ostatua eta gosaria daude eskaintzan sartuta

Azkeneko txangoa urrian egin zuten, Logroño eta Santo Domingo de la Calzada artean ■ M.O.



Udal "hurbila eta biziagoa" du helburu EAJk



Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du Berrizko Eusko Alderdi Jeltzaleak. Orland Isoird izango da alkategaia, eta "herri-tarrendandik hurragoko udala" egonkortzearen aldeko apustua egin du. Horregaz batera,

kudeaketari dagokionez, uda-la "arinagoa eta biziagoa" iza-tea dute helburu jeltzaleek. Esa-terako, arretarako telefonoa ezartzea planteatu du Isoirdek. Auzoek ere arduratzen dutela-eta, auzo-taxia ipini gura dute herriguneagaz lotzeko. ■ M.O.



BATXILERGOA
aurrematrikulak

MAIATZAREN
2TIK 11RA



IES JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoak (10 ereduak):
Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak
Zientziak eta teknologia
Demagorrezko Bigarren Hezkuntza

Kalitateko Hezkuntza
Orientazio pertsonalizatua
Heziketa euskalduna
Irteera eta ekintzak
Teknologia berriak
Ingurumen naturala
Taldea (xilak)

Olaburu, 3 48215 Iurreta Tel.: 94 681 04 61 e-maila: 015090aa@hezkuntza.net www.oroilogoitia.net

DURANGO

2013rako amaituko dituzte zozketatu dituzten 58 etxeak

Apirilaren 20an egin zuten zozketarako 645 herritarrek eman zuten izena



Garajeetako bigarren solairua eraikitzen dabilta zozketatutako etxebizitzetan.

Errotarituena auzoan, Odi-Bakar enpresa zegoen lursailetan etxebizitzak eraikitzeke lanek aurrera jarraitzen dute, eta, dagoeneko, bertan biziko direnek jaso dute euren berri ona;

Gutxienez bost urtean Durangon erroldatutakoek izan zuten aukera babeseko etxebizitzetan zozketan

hilaren 20an zozketatu ziren babeseko 58 etxebizitzak.

Durangon gutxienez bost urtean erroldatuta dauden herritarrentzat izan zen zozketa, eta, guztira, 645 pertsonak eman zuten izena bertan. San Agustin kultur-gunera 200 bat lagun gerturatu zen, zozketaren emaitzen berri bertatik bertara izateko.

Logela bakarreko, biko eta hiruko etxebizitzak dabilta eraikitzen. Etxebizitza horietako hiru

mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzako egokitutakoak izango dira.

Lanen erritmoa

Zozketa amaitutakoan Sukiako gerente Joseba Cedrunek hartu zuen hitza. Adierazi zuenez, garajeetako bigarren pisua eraikitzen dabilta oraintxe bertan, eta 2013ko lehen hiruhilerako etxebizitzetan giltzak banatzeko moduan izango ei dira. ■ A. Ugalde.

OTXANDIO

Lorategiak mantentzeko lanak egiteko adjudikazioa

Herriko lorategien mantenurako enpresen lehiaketa burutu du udalak, eta dagoeneko adjudikatu du zerbitzua. Azkeneko udalbatzarrean hartu zuten erabakia. Lau enpresak parte hartu dute lehian eta Crisan Garden abadiñarrari esleitzea onetsi dute.

Aurkeztutako proposamenen artean atalkako puntuaketa egin dute, eta enpresa horrek jaso du emaitzarik altuena.

Aurkeztutako proposamenen artean atalkako puntuaketa egin dute udalean

UEUko ikastaroak

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan parte hartuko duten herritarrei laguntza ematea erabaki zuten udalbatzarrean; UEUk egindako diru-laguntza eskaerari erantzunez adostu zuten erabakia. ■ M.O.

UEUko ikastaroetan parte hartuko dutenei laguntza ematea erabaki dute

IZURTZA

Udal aldizkarian ez dietela lekurik egin salatu du EAJk

Legegintzaldiaren balantzea eginenez "udalaren 1.600 euroko" inbertsioagaz duela zenbait aste herriko etxeetan banatu duten aldizkarian euren alderdiari "lekurik ez" diotela egin salatu du apirileko udalbatzarrean EAJko Zarrabeitia bozeramaileak.

Orain aste batzuk kaleratu zuten udal aldizkarian EAJri "ahotsik ez ematea" egotzi diote jeltzaleek gobernari

Diru publikoagaz euren "alderdiari ahotsa ematea" egotzizion Zarrabeitiak Ezker Abertzaleko gobernari. Aldizkarian jasotako hainbat ekimen EAJk sustaturikoak direla eta aldizkarian aintzat hartu dituztela erantzun zion Muñoz alkateak.

"Faltan bota duguna, legegintzaldi honetan udaletxe honetako talde garen heinean, jeltzaleok egin dugun lana azaldu ahal izateko aldizkarian lekutxo bat edukitzea da, besterik barik", azpimarratu zuen bozeramale jeltzaleak. Gobernuaren jarrera hori aurreko urteetan ere kritikatu izan dutela gogorarazi zuen Zarrabeitiak. ■ I.E.

mudarrirri euzuna

IRTEERA Andra Mariako Elizpea

ORDUA 09:00

IRAUPENA 3 ordu

IBILBIDEA
 LANDAKO KIROLDEGIA, IBAIZABAL ERREKA, SAN FAUSTOKO GELTOKIA, ALIENDA, EGUZKITZA, TELLERIA, ARROKOA, SANTIKURUTZ, MAÑARIA ERREKA

APIRILA 2011

LARUNBATA

30

DURANGO
Udala - Ayuntamiento

IZEN EMATEA
 Izena ematerakoan txartel bat jasoko duzu.
 EPEA: apirilaren 29a arte

GAZTE INFORMAZIO BULEGUA
 Pirondo Plaza, 1 94 603 00 30
 informazioa@durango-udala.net www.durango-udala.net



ABADIÑO

Langileen kontratazioa nahierara egitea egotzi diote alkateari

Martitzeneko bilkurako eskarien artean Ezker Abertzaleak salatu zuenez, udaleko beharginak “bere gustuaren arabera” kontratatzen ditu alkateak

Legegintzaldiko azkeneko ohiko udal bilkuran, galdera eta eskarien tartean, Ezker Abertzaleak mahaigaineratutako galdera batek ekarri zuen eztabaida: "Zer gertatzen da udalaren kontratazioekin?", galdera zuzendu zion Igor Arkarazok Jose Luis Navarro alkateari.

Gobernu taldearen udala kudeatzeko modua salatuz hasi zuen Arkarazok hizketaldia, eta

Udaleko langileak bere “gustuaren arabera” bereiztea egotzi dio Ezker Abertzaleak Navarro alkateari

J.L. Navarro: “Irregularitasunen bat egin dudala uste baduzue denuntziatu, behingoz”

ondoren eskainiko zituen datuak udaletik kanpora jaso dituela azpimarratu zuen: alkateak ez dizkiola oposizioari jakinarazi. "Udaleko langileren batek denuntziatu al du udala?", galdetu zuen Arkarazok. Baietz erantzun zion Navarro alkateak, “udalaren kontrako hiru denuntzia indarrean” daudela.

Udaleko langileen artean bere "gustuaren arabera" bereizketak egitea egotzi zion Arkarazok

Traña-Matienako kaleetan jai giro bete-betea bizi dute eguaztenetik

Eguaztenean jaso zuten Sanprudentzioetako Donien Atxa; egitarau oparoa daukate prest

Apiril amaiera eta maiatz hasiera-ko egun eta gauak lotzeko, egitarau zabala dago Sanprudentzio jaietan gozagai. Eguazten iluntzean Traña zubian elkartu eta jaien hasiera iragartzen duen Donien Atxa altxatu zuten auzotarrek. Monica Iglesiasi eman zioten urteko pertsonaiaren saria urteetan jai batzordean egindako lanagatik.

Iluntzeko jai giroa sustatzeko helburuz, 20:00etan zabalduko dute aurten txosnagunea

Datozen egunetan, maiatzaren 8an jai egitaraua amaitu arte, deneriko ekitaldiak izango dira: bertso-saioa, kontzertuak, edota

paella eta tortilla txapelketak izango dira, besteak beste.

Bestalde, Txosna Batzordeak azpimarratu duenez, apustu berezia egingo dute aurten Sanprudentzioetako txosnagunean.

Arratsaldea girotzeko

Aurreko urteetan baino ordu bi lehenago zabalduko dute txosnagunea aurten; 22:00etan barik, 20:00etan. Txosnen irekierarako, gainera, ekitaldi bereziak antolatu dituzte apirilaren 29 eta 30erako eta maiatzaren 7rako; parrilladak, kontzertuak eta sardina-jana antolatu dituzte, besteak beste. "Egitarau zabal eta parte-hartzailea" bilatu dutela antolatu azaldu dute Txosna Batzordekoek. ■ I.E.

> Bideoa: www.anboto.org



Apirilaren 27an, iluntzean eman zioten jaiari hasiera.

Gobernuaren kudeaketa kritikatu dute jeltzaleek

Azken lau urteotan udal gobernuan egon diren Abadiñoko Independenteen udal kudeaketa salatzeke oharra bidali dute jeltzaleek hedabideetara. Besteak beste, 2007an alkatetza hartu zutenean Abadiñoko Udalak “lau milioi euroko superabita” zeukala eta “gaur egun udaleko diru-kutxan 28.000 euro” baino ez daudela salatu dute.

Jose Luis Navarro alkatea buru duen Abadiñoko Independenteeak taldeak amaitzear dagoen legegintzaldian burutu duen udal kudeaketaren aurrean, euren "haserrea" eta "desadostasuna" agertu dute ohar horretan EAJko ordezkariak. ■ I.E.

MAÑARIA

Maiatzaren 13ra arte eman daiteke izena Haurreskolan

Maiatzaren 2tik 13ra arteko epea izango dute irailetik aurrera euren seme-alabak Haurreskolan matrikulatu gura dituzten gurasoek. Izena emateko eskariak epe horren barruan aurkeztu ahaliko dituzte Haurreskolan; informazio zabalagoa 08:00etatik 10:00etara eta 12:30etatik 15:00etara eskuratu ahaliko dute, Haurreskolan bertan.

Orain hiru urteko udaberrian zabaldu zutenetik, urtetik urtera egonkortzen eta herritarren artean harrera hobea izaten ari da Eusko Jaurlaritzaren Haurreskolen Partzuergoak kudeatzen duen zerbitzua. ■ I.E.

Bigarren Hezkuntzako Institutua

A eta D ereduak

AURREMATRIKULA

Batxillergoa: Maiatzaren 2tik 11ra

Zikloak Ekainaren 1etik 10era

ONGARAI AUZOA Z/B. 48260 ERMUA (BIZKAIA)
943 17 62 57

OTAOLA HIRIBIDEA, 29. 20600 EIBAR (GIPUZKOA)
943 20 84 44

UNI@IESUNIBHI.COM

BATXILERGOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
GIZA ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
AKTIBITATE FISIKO ETA KIROL ANIMAZIOA
SISTEMA INFORMATIKO ETA SAREEN ADMINISTRAZIOA
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK
MERKATARITZA

ARAUTU GABEKO HEZIKETA

HEZIKETA JARRAITUA
ZEREGINETAKO HEZIKETA
ESKAINITZA PARTZIALA



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

*Jatetxe
gida*



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erreategia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko
11 euro



Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko
menuak. Asteburuko menu bereziak.
Karta. Ospakizunetarako menuak:
ezkontzak, enpresa bazkariak,...
Aurrekontu guztietarako menuak.

DIURRETA

Etxean erabilitako hiru olio litrotik bat birziklatu dute

2010eko apirilean ipini zituzten etxean erabilitako olio birziklatzeko zerbitzu integralerako ontzi bi; urte batean, 4.000 litro batu dituzte

Urtebetean, etxean erabilitako 4.000 litrotik gora olio batu dituzte olio hori birziklatzeko zerbitzu integralerako udalak ipinitako ontzi biek. Hau da, urtean, batez beste, iurretaren bakoitzak etxean erabilitako hiru litro oliotik bat birziklatu egin da. Datu horiek eman ditu Iñaki Totorikaguena alkateak: "Pozik gaude, birziklatze ratio altuenetako dugu-eta. Kontzientziazio lan horregaz jarraitu behar dugu".

2010eko apirilean jarri zituen Iurretak ontziok. Arrasateren ondoren, Gueñes eta Iurreta izan ziren hurrengoak. Bixente Kapanagako ontzian 2.800 bat litro batu

Arrasateren ondoren, Gueñes eta Iurreta izan ziren hurrengoak etxeko olio batzeko ontziok jartzen

Bixente Kapanagako ontziak 2.800 bat litro olio batu ditu; Aita San Migel plazakoak, 1.200 litro inguru

dute; Aita San Migelen 1.200 litro inguru. "Urtebete izateko birziklatzea ondo asimilatu dugula esango nuke, eta lan horretan jarraitu gura dugu", dio alkateak.

10.000 euroko aurrezte

Alkateak gogoratu du harraskatik isuritako litro bat olio garbitzeko 1.000 litro ur behar dela, 2,5 euro ezeze, hoderia eta estolderiak garbitzeko: "10.000 eurotik gora aurreztu dute iurretaren olio birziklatuz; litroak ur ere bai". Biodieselako erabiltzen da olio hori, eta bestelako aukerak aztertzen ari dira; batez ere, alternatiba industrialak. ■ A.Basauri



Etxean erabilitako olio birziklatzeko ontzi bi daude Iurretan.

Eskolatze gastuei aurre egiteko laguntza

0-16 urte bitarteko neska-mutil bakoitzeko 75 euro arteko diru-laguntzak emango ditu Udalak

Udalak 15.000 euro gorde ditu herriko 0-16 urte bitarteko neska-mutilen eskolatzetik familiei eratorritako gastuei aurre egiteko. Haurreskolatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitartean, gehienez, 75 euroko laguntza jasoko dute familiek umeko; gutxienez, berriz, 20 euro, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez.

Baldintza bi bete behar dira: 2010-2011 urte tartean Iurretan

Iaz 300 umek jaso zuten laguntza; aurten, 0-16 urte bitarteko 500ek dute aukera

errolatuta egotea, batetik, eta, bestetik, eskolatzea mantentzea urte osoan zehar; Iurretan zein beste herri baten. Argitu duenez, aurrekusi baino eskari gehiago egonez gero, diru-laguntzen banaketa berraztertuko dute.

Laugarren urtez

Laugarren urtez banatuko dituzte laguntzak. Iaz 300 neska-mutil jaso zuten eta aurten 0-16 urte arteko 500ek dute aukera. Eskariak egiteko epea maiatzaren 16an hasi eta hilaren 27an amaituko da. Azken urteetan 15.000 euroko atal hori mantendu du Iurretako udalak. ■ A.B.

SMALLABIA

Goi mailako bertso saioa antolatu dute bihar frontoian

Orraitio euskara elkarteak, udalak babestuta, goi mailako bertso saioa antolatu du zapatu gaueko Mallabiko pilotalekuan. Sei bertsolari ariko dira bertsotan taula gainean, eta tartean dago gaur egun Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako txapelduna den Maialen Lujanbio.

Beragaz batera jardungo dute Imanol Lazkano, Igor Elortza, Beñat Ugartetxea, Julio Soto eta Julen Zelaetak. Gai-jartzaile lanak Asier Ibaibarriagak egingo ditu. Bertso saioa 22:00etan hasiko da Mallabia I pilotalekuan, eta sarrera bost euro izango da. ■ J.D.

Ekuadorren ere Korrika egin zuten, hainbat euskaldunen ekimenez



Ekuadorreko Pastaza probintziako Puyo hiriburuan Korrikagaz bat egin zuten apirilaren 15ean lau euskaldunen ekimenez; tartean, Ane Loiola mallabitarra dago. Euskaraz eta kitxua idatzitako pankarta batez irten ziren kalera euskarari elkartasuna adieraztera. Korrika egin aurretik, hainbat hitzaldi antolatu zituzten euskara eta kitxua anaitzeko. ■ J.D.

AURREMATRIKULAZIO DATAK

- **DBH:**
 - Gela egonkorra
 - Laguntza gelak
 - Curriculum desberdinak eratzeko programak
- **BATXILERGOAK:**
 - Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleanitza)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleanitza)
 - Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)
- **ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)**
- **HEZIKETA ZIKLOAK:**
 - Erdi mailako heziketa zikloa: Landa inguruneko Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (ID ereduak)
 - Goi mailako heziketa zikloa: Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena (ID ereduak)

Batxilergoak:

maiatzaren 2tik 11ra

institutua

Durango

Frai Juan de Zumarraga, 21-23
48200 DURANGO (Bizkaia)
Tel: 94 657 10 60 - 94 681 73 25
Fax: 94 681 02 58
e-posta: fjzumarraga@euskalnet.net
web: www.durangokoinstitutua.com

Durangaldean labor

'Festa Kubatarra' egingo dute gaur San Marko jaietan

Gaur Festa Kubatarra egingo dute San Marko jaiei barruan; elkarrekin afaldu ondoren, musikak eta dantzek alaituko dute gau giroa. Zapatuan, 17:00etan, umeentzako jolasak eta dantzak egongo dira. Iluntzean Luhartz taldeak erromeria eskainiko du. Domekan, mezaren ondoren, lurretako bandaren 100. urteurreneko ekitaldia egingo dute, eta 18:00etan idi-probak hasiko dira.

Ostalariak eta dendariak preso en eskubideen alde

Durangoko hainbat ostalari eta dendarik euskal preso en sakabanaketa egoeragaz amaitzeko eskatu dute: "Sakabanaketarekin amaitzea, gaixotasun larriak dituzten preso en kalera tzea, eta bizi osoko kartzela zigorra bertan behera gelditzea" eskatu dute. Horren haritik, gaur, 20:00etan, Ezkurdin burutuko den elkarretaratzean parte hartzera deitu dute.

Guraso.com guneak aditu berriak ditu

Guraso.com webguneagurasoen premiak konpartitzeko gunea da, euskaraz sorturiko lehenengoa, eta kolaboratzaile berriz aberasturik dator 2011. urtean. Sei arlo berri (Internet, jolasak, gurasotasuna, logopedia, psikologia eta hezkuntza) jorratuko dituzte beste hainbeste adituk.

Gaizka Jareño preso elorriarra kalean

Gaizka Jareño atzo aske geratu zen bi urte eta erdi espetxean igaro ondoren. 2008ko uztailean atxilotu zuten elorriarra, ETaren kolaboratzailea zela leporatu ondoren. Bi urte hauetan Madril eta Huelvako espetxeetan egon da. Hile honetan burutu da epaiketa eta ondoren gelditu da aske.

ELORRIO

Behin betiko onartu dute Hiri Antolamendurako Plan Nagusia

San Antongo lurak birkalifikatzearen kontra dauden taldeentzat plan "basatia" da



San Antongo lurretan zazpi hektarea industriarako birkalifikatuko dituzte.

EHA izan ezik, beste alderdi guztiek babesa emanda onartu du Elorrioko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN). Hainbat ekarpenekin testua osotu eta behin betiko onartu dute plana.

Bozketa egin zuten udalbatzarrean San Antongo lurak indus-

triarako kalifikatzearen kontra testu bat aurkeztu zuten hainbat ekologista taldek eta eragilek; tartean Auzo Koordinadorak, EHAK, EB-Berdeek eta Aralarrek. Egitasmoa "basatia eta espekulatiboa" dela salatu dute, eta Eusko Jaurlaritzak "lur horiek babesteko emandako gomendioei kasurik ez egitea" lepo-

ratu diote gobernu taldeari. Planaren aldeko alderdiek Jaurlaritzaren txostena ez dela loteslea nabarmendu dute.

HAPN izan dituen aldaketen artean, EHNEren alegazio bati kasu eginda, San Antongo 15 ha Lurren Banku Publikoan sartuko dituzte nekazaritza sustatzeko. ■ A.Ugalde

Mahai-ingurua, maiatzaren 5ean, herriko etorkinekin

Kainaberak antolatutako hitzaldi zikloa hasiko da

Emigrazioa zelan bizi duten kontatuko dute Elorrioko hainbat etorkinek datorren egunean egingo duten mahai-inguruan. Kainabera GKEak gidatuko du hilaren 5eko hitzordua, maiatzarako antolatu-

tako hitzaldi zikloaren barruan. Iturri kultur etxean egingo dituzte zikloko berbaldi guztiak; hiru egunetan, arratsaldeko 19:30ean.

Maiatzaren 19an inmigrazioaren eta aurreiritzien gaia landuko

dute, Xabier Aierdi soziologoagaz. *Zelan ikusten ditugu etorkinak?* izenburupean emango du berbaldia Ikuspegi Inmigrazioaren Behatoki kideak. Hilaren azkeneko bi asteetan SOS Arrazakeriaren erakusketak egongo da ikusgai, gainera, Iturrin: emakume etorkinen gainekoa.

Zikloa amaitzeko, herrialde arabiarretan hileotan egon diren aldaketetan sakonduko dute, hilaren 26an, Victor Pozas EHuko irakasleagaz. ■ A.U.



Bildu koalizioak zerrenda aurkeztu du



Ia 300 pertsona gerturatu ziren hilaren 19an Bilduk Arriolan egin zuen aurkezpenera. Udal hauteskundeetara aurkeztuko diren 14 hautetsiek parte hartu zuten ekitaldian; Idoia Buruaga izango da alkategaia. Buruagak aurkezpenean Eusko Alkartasunak, Alternatibak eta independenteek osotutako tal-

dearen garrantzia nabarmendu zuen.

Programa osotzeko hainbat alorretako gabeziak, beharrrak eta aukerak aztertu dituztela azaldu du zerrenda buruak: "Badakigu zer dagoen eginda eta zer egiteko, eta lan egiteko prest dauden emakume eta gizon gaituak ditugu". ■ A.U.

GARAI

Udaletxeko teilatua konpontzeko adjudikazioa

Abuztuan egingo dituzte teilatuko lanak; joan zen astean onartu zuen udalbatzarrek

Garaiko udaletxeko teilatua konponduko dute abuztuan, eta lanak bideratzeko prozedura martxan da dagoeneko. Joan zen asteko udalbatzarrean obraren adjudikazioa burutu zuten; Egoin enpresak izango du lanen ardura. Egitasmorako, 112.120 euro inbertituko ditu udalak, ordezkariak azaldu digutenez.

Abuztuan hasi eta amaitzea itxaroten dute, horixe da lanak egiteko ipinitako epea.

Itoginak

Udaletxeko teilatua konpondu behar izateko arrazoiaren artean, itoginak agertu direla azaldu zuen Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkateak urte hasieran. ■ M.O.

Erriike
Liburudenda
Kuluberril 2/9 - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 78 93 - Fax: 94 681 64 03

Hemen agertu gura baduzu
deitu!
94 621 79 02

Uribarri, 21 (zinema aurrean)
Tel.: 94 603 24 26
DURANGO
Ireki berria!
EL MUNDO DEL JABON

Hurrengo eraikuntza
ZARATE ELEXPE
DURANGO
Gizarte Kapeneja 12, beheko - Tel.: 94 681 60 73
berrita - www.zarateelexpe.com
Elorrioren ere aukera onak



Odí-Bakar
ETXEBIZITZA BUKATUAK

Eraikin berria
HURRENGO HASIERA

58 BOE
ZOKETA APIRILAK 20



GEURE PROIEKTU GUZTIAK EGI BIHURTZEN DIRA DURANGON

BERBAZ >

“Auzoak oso desberdinak izateak ez du esan gura herritarrek banatu behar direnik”

Gobernu taldea hiru herrigune nagusietako arazoetaz arduratu dela nabarmendu du Abadiñoko alkateak



Jose Luis Navarro •

■ Abadiñoko alkatea
■ 55 urte dauzka

“Traña-Matienako pabilioiko lanak ezin ditu oposizioak gelditu”

koan, herritarrek elkartzeko ekitaldi bat eskola-kirola dela. Zelaieta eta Traña-Matienako umeek elkarrekin lehiatu behar lukete. Horrela gurasoek ere hartu-emanak hasiko lituzkete, eta denak abadiñar sentituko lirateke; ez batzuk Matienakoak eta besteak Zelaietakoak. Egia da auzo oso desberdinak direla, baina horrek ez du esan gura herritarrek banatu behar direnik.

Datozen urteetarako zer erronka izango ditu Abadiñok?

Arau subsidiarioak desblokeatu beharko ditugu, batez ere, industria berriak erakartzeko; Traña-Matienan sarreraren industria poligono bat egin gura dugu, adibidez. Etxebizitza arloan egon den premia asetu dugula uste dugu; eskaintzen gabiltzan etxebizitza kopurua herritarren eskaria asetzeko modukoa da.

Hauteskundeetan sentsibiltate politiko guztiak egongo dira?

Hori gurako nuke. Alkatetza Bilduren eta gure artean egongo dela uste dugu, eta eurek aukerarik ez badute, ez litzateke moralki egokia izango gu alkatetzan egotea. Gehiengo absolutua izango genuke, gainera. Udalean lan egiteko deserosoa izango litzateke guztiontzat. Aukera denak egongo direla pentsatzen dut, eta Sortu legeaz kanporatzea eta Bilduri baimena ematea lehenagotik pentsatutako estrategia izan dela. ■ A.Ugalde

Sanprudentzioak lehenengo, gero Santrokazak... jaiz betetako asteak etorri aurretik izan gara Abadiñoko alkateagaz berbetan.

Dagoeneko lau urte pasatu dira alkatetzan zaudenetik. Zelakoa izan da legegintzaldia?

Pozik nago. Ez genuen itxaroten, baina gure programako egitasmo gehienak onartzea lortu dugu. Aurrekontuak onartzea urte batean baino ez dugu lortu, eta horrela izanda gaitza ematen du baina EAJren laguntzagaz aurrekontuak onartu genituenean programako egitasmo gehienak onartu genituen.

Egindakotik zer nabarmenduko zenuke?

Euskara eta hezkuntza saila sortu dugu, eta kultura arloan ere hainbat kontu egin dugu; Errota eta Txanpontan astebururo egoten

“Autoritarioa naizen galdetuz gero, nire ingurukoek barre egingo dizute”

“Eskola-kirolean batera ibili beharko lukete Zelaieta eta Traña-Matienako eskola-umeek, Abadiño izenagaz”

da zer edo zer orain. Durango, Traña-Matien eta Zelaieta arteko errepidea hobetzea ere lortu dugu. Pozik gaude egindakoagaz.

Arantzatzoren bat?

Bai. 2010ean Zelaietarako hiri-gintza proiektua planteatu genuen; besteak beste, auzoko lurra altxatu eta oinezkoentzako hainbat leku ipini gura genituen. Oposizioak ez zion babesik eman aurrekontuari, nire “izaera autoritarioa” aitzakitzat ipinita. Ingarukoei galdetuta barre egingo dizute, ez bainaiz horrelakoa. Kontsentsua lortu gura izan dut, baina ez da erraza izan.

Zergatik izan da gaitza kontsentsu hori lortzea?

EAJk oposizioa egiten du alkate-tza kendu geniolako. Ezker Abertzaleagaz hasieran eurekin negoziatzeko asmoa geneukan, baina negoziatzen geundela ETAK su-etena amaitu zuen, eta gure boto-emaileak kontutan hartuta, egoera horretan ez negoziatzea

erabaki genuen. Independentek izan eran hainbat sentsibiltateko jendeak ematen digu botoa, PPri eta PSE-EEri botoa ematen dion jendeak tartean. Pentsatu genuen botu-emaile askok ez lukeela gurako gu Ezker Abertzaleagaz negoziatzen ibiltzea ETA tiroka zebilen bitartean. Negozioak apurtu genituen, ez zuten ulertu, eta esan ziguten ez zigutela urik ere emango.

Azken eztabaida Traña-Matienakoekintza anitzetarako pabilioiak sortu du...

Eskolarako aterpea egiteko EAJ-gaz genuen egitasmotik 250.000 euro sobratu zitzaizkigun. Teknikoekin berba eginda, beste diru-atal batzuetatik dirua hartu eta proiektu hori egin daitekeela konturatu ginen, eta kirola egiteko pabilioia egitea proposatu genuen, 2007an herritarrek eskatu zuten moduan. Komunikabideetan oposizioak obra gelditu egin dezakeela agertu da, baina hori ez da egia; teknikoek txoste-

nek orain arte gobernu taldearen alde egin dute, eta Jaurilaritzatik diru mugimenduak txarto egin direla esaten badute, beste modu batera egiteko eskatuko digute, baina lanak ez dituzte geldituko.

Auzoak baztertu izana leporatu dizute oposizioari taldeek...

Ez da egia. Zelaietako proiektua oposizioak atzeratu zuen eta oraindik premiazkoa dela iruditzen zaigu; aurrera ateratzeko lan egingo dugu. Zelaietak oinezkoentzako guneak eduki behar ditu, eta, adibidez, elizaren eta udaletxe artean plaza bat. Traña-Matienan zentratzea leporatu digute, eta hori ez zen gure helburua, baina egia da udalera heltzean auzorik hondatuena zela. Trafikoa kentzeko premiagaz hasi ginen 20.000 ibilgailu pasatzen zirelako egunero. Auzoa hobetzeko ahaleginak egin ditugu, baina ez bertan bakarrik. Muntzaratzen ere, auzokideen elkartea egitera animatu genituen, eta eskari piloa egin dizkigute; auzoari bizia ematen dio elkartek.

Abadiñon, auzo bakoitzak bere nortasuna dauka...

Bai, eta elkarren arteko kohesioa lortzea gaitza da. Eskoletako zuzendariei esaten nien aurre-

KULTURA[>]

MUSIKA> EMANALDIA

Xabier Amuriza bertsolariaren, Kepa Junkera musikariaren eta Basilio Astúlezek zuzentzen duen Leioa Kantika koralaren elkarlanetik sortutako proiektuaren zuzeneko emanaldia da maiatzaren 7an Landako erakustazokan entzungai izango duguna. Sarrerak www.generaltickets.com webgunean daude salgai. Asteon Asturiasen disko baten zuzeneko grabazioan kolaboratzen jardun duen Kepa Junkerak azaldu digu *Beti bizi* proiektuak zertan datzan.

Bermeon eskaini zuten lehenengoz zuzeneko emanaldia, eta Glasgow-ko Celtic Connections jaialdian ere hartu dute parte. Durangoko emanaldiaren aurretik, Leioan egongo dira bihar.

K. Junkera: “Pribilegioa da hauek bezalako sortzaileekin aritzea”

Hogeitik gora lagunek jardungo dute Landako erakustazokan



Junkera, Amuriza eta Leioa Kantika abesbatza, bizi-bizi

Durangaldean oso ezagun zaizkigun ‘Dantzari Dantza’-ko doinuak oinarri hartuta Xabier Amurizak, Kepa Junkerak eta Leioa Kantika koralak sortutakoa da maiatzaren 7an Durangon ikusgai izango dugun ‘Beti bizi’

“Musikak eman didan pribilegioa da hauek bezalako sortzaileekin lan egin ahal izatea”, azpimarratu digu lehenengo Junkerak. Ondoren azaldu digu, kopia tradizionalen inguruko Xabier Amurizaren ideia batetik sortu zela *Beti bizi*: “guztiokezagutzen ditugun melodiak moldatuz”. Kopia tradizionalak *Dantzari dantzaren* erritmoetara ekarri zituen Amurizak, eta material horregaz jardun du ondoren Junkerak.

Jose Luis Canal musikariagaz elkarlanean musikatu ditu *Beti bizi* diskorako kantak Kepa Junkerak, eta Xabier Sarasolaren konponketekin, “forma berria” eman diete elementu horiei guztiei.

Leioa Kantika koralagaz, abesbatzen egitura tradizionaletik

bereizten diren proiektuetan parte hartzeko irrikagaz dagoen talde gazteagaz, elkarlanean aritzea ere oso interesgarri egiten zaiola azpimarratu du trikitilariak.

Amurizak berreskuraturiko koplak, programazioak, abesbatza garaikidearen ahots eta mugimenduak eta Junkeraren musika uztartuta sortutako ikuskizuna da aho-

Amuriza asko miresten eta errespetatzen duela aitortu digu trikitilariak

tan darabilgun *Beti bizi*. Hogeitik gora lagunek hartuko dute parte Landako erakustazokako emanaldian: hamabost lagunek osatzen duten abesbatza eta zuzendaria, Xabier Amuriza eta Kepa Junkeraren talde osoa batuko dira.

Amurizagaz elkarlanean aurretik ere aritua dela eta “alde pertsonaletik zein profesionaletik asko miresten eta errespetatzen” duela aitortu digu Junkerak.

Elkarlana ikasbide

“Formazio musikal akademiko arrunta ez daukadanez, deneriko musikariarekin jardutea ikasbide oso inportantea izan da beti niretzat”, diosku Junkerak. Bere ibilbideak erakusten du esparru eta jatorri askotako musikariarekin kolaboratzea zenbat baloratzen duen: “Zure musikaren gaineko besteen ekarpenak jaso ahal izatea oso da betegarria”, adierazi du.

Durangaldean oso ezagunak zaizkigun melodiak eskaintzen dituzte *Beti bizi* proiektu honetan: *Launangoa*, *Txotxongiloa*, *Aita San Migel*, *Arkudantza*... Erreper-

torio hori gurean hain errotua dagoelako, Durangoko maiatzaren 7ko emanaldiak “ilusio berezia” egiten diola azaldu digu Junkerak. Ikuskizun berezia dela *Beti bizi*, eta “musikaz gozatzea gogoko duenaren gustukoa” izango dela dio.

Maiatzaren 7an Durangon izango dugu, baina, aldi berean, beste hainbat egitasmotan ere badihardu: maiatz amaieran edo ekain hasieran kaleratuko duen disko berriari azken ukituak ematen dabil. Berak sortutako kantak, ikuspuntu “are irekiago” batetik sortutakoak, bilduko ditu Junkeraren disko berriak. ■ I. Esteban

Errepertorioan; ‘Aita San Migel’, ‘Launangoa’, ‘Txotxongiloa’...

Ikuskizun berezia eta gustagarria da ‘Beti bizi’ Junkeraren esanetan

Kopla zaharrak dantza erritmo tradizionaletara moldatuta

Bertsozale elkartearen enkar-guz aspaldi hasitako lana da *Beti bizi* diskoaren abiapuntuko Bizkaiko koplak: bi milatik gora kopia batu eta liburuan argitaratu zituen Xabier Amurizak. Testu horiek beste euskarri batean eskaini eta zabaltzeko, Tapia eta Leturiagaz elkarlanean *Bizkaiko kopia zaharrak* izeneko diskoa ere kaleratu zuen bere garaian. Zerrenda luze

horretatik, “kalitate handikoenak” direla deritzen beste hainbat kopia ere diskoan eskaintzeko helburuagaz, Kepa Junkeragaz elkarlanari ekin zion.

Beti bizi disko honetarako, koplak Bizkaiko dantza doinuaren erritmora moldatzea bururatu zitzaizola kontatu digu Amurizak: *Dantzari dantza* serieko doinueta egokitu zituen testuak. Plazan letrarik barik entzutera

ohituta gauden *Aita San Migel*, *Banangoa* eta *Binangoa* lakoak dira *Beti bizi* diskoaren doinu eta erritmo oinarriak.

Beti bizi diskoan bildutakoak, eta maiatzaren 7an Durangoko Landako erakustazokan eskainiko dituztenak, “dantza erritmoetara egokitutako kopia zaharrak” dira, Xabier Amurizaren berbetan; kopia zaharrak kantatzeko eta entzuteko modu berria eskaintzen dutenak.

Leioa Kantika koralaren eta Kepa Junkeraren Durangoko emanaldian aurkezte lanak egingo ditu Xabier Amurizak.

BERTSOLARITZA > BERTSOZALE ESKOLA

Maiatzeko lau eguenetan Plateruenean batuko dira, hirugarrenez, bertsozaleak

Maiatzaren 3ra bitartean, kultura@plateruena.net helbidean edo Platerueneko barran eman daiteke izena

Bertsogintzaren inguruko dibulgazioa egiteko helburuz, berbaldi formatuko hiru saio eta eskualdeko bertsolarietara egingo duten saioa antolatu dituzte Platerueneko DF Bertsozale Eskolaren hirugarren edizio honetarako.

Maiatzean hartuko du bertsozaleen gustuko hitzordua Durangoko Plateruena kafe antzokia: maiatzeko eguenetan izango dira saio guztiak, 20:00etan hasita.

Saioetan parte hartzeko interesa daukatenek izena emateko aukera bi eskaini dituzte antolatzaileek: Plateruena kafe antzokiko barran edo Interneteko kultura@plateruena.net helbidean eman daiteke, maiatzaren 3ra arte, parte hartzeko izena.

Aurtengo egitaraua zabaltzeko, Iñaki Murua bertsolari gabiriarra gonbidatu dute DF Bertsozale Eskolan lehenengo berbaldia eskaintzeko: *Ofiziotan eta teman, gauza bera ote?* gaiaren inguruan burutuko dituzte aurtengo eguenean Muruak gogoetak.

Muruak legez, "bertsoaldi komentatu" formatuan eskainiko du bere hitzaldia bigarren saiorako gonbidatu duten Amaia Agirrek. Bakarkako lanari buruz, bere esperientziatik jardungo du Agirrek.

Bertsozale Eskolaren hirugarren edizioa amaitzeko, maiatzaren 26ko bertso saiorako gaiak prestatzeko batuko dira parte-hartzaileak maiatzaren 19an. Maite Berriozabal gai-jartzaile berriztarraz prestatuko dituzte laugarren hitzordurako gaiak: Unai Iturriagak, Gorka Lazkanok, Iratxe Ibarrek eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek jardungo dute maiatzaren 26an. ■ I.E.

Maiatzaren 26an, bertso saio batez itxiko dute bertsozale eskolaren aurtengo eskaintza

SAIOAK

Maiatzak 5, 20:00

Ofiziotan eta teman, gauza bera ote?, Iñaki Murua bertsolariagaz

Maiatzak 12, 20:00

Bakarkako lana: sententziatik iradokizunera, Amaia Agirre bertsolariagaz

Maiatzak 19, 20:00

Maiatzak 26ko bertso saioaren prestateta Maite Berriozabal gai-jartzailearekin

Maiatzak 26, 20:00

Bertso saioa: Unai Iturriaga, Gorka Lazkanok, Iratxe Ibarra eta Eneko Abasolo "Abarkas" bertsolarietara

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

Gaurkoaz

Oroitzapen eguna da idazten ari naizen hau, baita ondo irabazitako oporraldiaren biharamuna ere. Gaiak kargak kendu ondoren, arin-arin bueltatzen den horietakoa naizenez, gustura ekin diot egunerokotasunari. Ohiko soinueta zerbait diferentia sumatu dut, Mañaria erreka ez dago lehengo moduan, presaginetik urik ez.

Nahaspilatu samar topatu ditut mahai gaineko paperak. Bildu eta gero, banan-banan aztertzen nabil. Begiratu batean, dena txukun, izen-deiturak eta gainontzeko datuak ere bai. Epai-leen... barkatu, epaimahaikoen txanda izango da ondoren, haiei entregatu behar baitizkiet paperok, eta denak ondo miatutakoan ebatziko dute. Zalantzarik seguru izango dutena. *Zizare zuloa*, 1969 eta *La cité de l'amour* apartatuko dituzte, agian, txukunak begitandu zaizkie-eta. *Irribarre gozo hura*, *Azken solairuko amona*, *Iluntze hartan*, *Eraikitzeak suntsitzen*, *Ez naiz gai...* hauek ere, badaezpada, aparte utziko dituzte, polito baitaude. Ez zaitezte endredatu, Julene Azpeitia lehiaketaz ari naiz. Axola zaizkien gaiak buruz eta sentimenduez idazten dute eskola-ume eta gazteek, argi eta aske, gehienetan.

Oroitzapen eguna da idazten ari naizen hau; Gernika, Txernobil... Gaurkoaren eta biharkoaren beldurrez, iraganera jotzea erosoago delakoan edo, martxoaren erditik hilabetea eman dut (dugu?) atzera begira, urrun. Hain urrun, ze harrapatuta sentitu bainaiz han, sasoi sumin hartan; eta garunek gelditzeko eskatu didate, nahikoa dela, eta erreparatzeko begien aurrean daukadan ederrari. Onartu dezadan, inbidia apur bat diot umeek munduari begiratzeko duten erari, behinik behin, salbu daude nire belau-naldikook iraganaz ditugun obsesioetatik. Horietatik ihes egin guran edo, multzoka sailkatutako idazlanetatik bat hartu eta gainbegiratu bat eman diot; izenburu bitxia du: *Deus vult*.

ERAKUSKETA > ATZERABEGIRAKOA

Figuraziotik abstraktura, emakumearen gorputzaren biribiltasunetik igarota izenburuagaz antolatu du 1949an Lillen jaiotako Michel Tytgat margolariak bere ibilbidearen isla diren koadroen erakusketa. Maiatzaren 1era arte, Durangoko Ezkurdiko aretoan izango da erakusketa zabalik.

Egileak erakusketaren izenburuan jasotzen duen legez, artistaren hasierako lan figuratiboen abiatu eta azken hamarkadan burututako sorkuntza abstraktuagoekin ixten da erakusketa: 60ko hamarkada amaieran eta 70eko hamarkadan zehar arkatzez eta formatu txikian osaturiko gorputz biluzien margoak dira erakusketarako bildutako zaharrenak: emakumea, biluztasuna eta erotismoa oinarri daukaten lanak.

Michel Tytgat margolariaren ibilbidearen erakusle diren koadroen bilduma Ezkurdin

Maiatzaren 1era arte Durangoko Ezkurdiko aretoan daude Michel Tytgat artistaren margogintza ibilbide oparo eta aberatsaren isla diren koadroak


60ko eta 70eko hamarkadetan, arkatzez eta formatu txikian osaturiko lanak abiapuntu

Erakusketan barneratuz, urteek aurrera egin ahala margolariak hartzen dituen esperimentazio bideak dauzkagu ikusgai: *collage*-ak, margo koloretsuekin egindako paisaiak, azken hamarkadan jorratzen diharduen pintura abstraktua... ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



MAIATZAK 1 22:00etan
VOVOD+ GRIMSKUNK + COUGH
KONTZERTUA. Sarrera: 20-23euro.



MAIATZAK 5-12-19-26 20:00etan
DF BERTSOZALE ESKOLA 2011
BERTSOALDI KOMENTATUAK
Lau egunetako matrikula: 10euro.



MAIATZAK 13 22:00etan
NACHO VEGAS + REFRE
HEINEKEN MUSIC SELECTOR
KONTZERTUA. Sarrera: 12(+gastuak)-16euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ECOGRAFIAS de Karmele Jaio

Makiescenica



Maiatzak 5 • 20:30

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA



EGITARAUA > EMANALDIAK

Orain 29 urtetik mundu guztiko herri eta hirietan apirilaren 29an ospatzen duten Dantzaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, egitarau oparoa antolatu dute bihar eta etzirako Durangon. Turismo bulegoaren, udalaren eta San Agustin kultur-gunearen babesagaz, Durangoko L'atelier dantza eskolak antolatu ditu apirilaren 30erako eta maiatzaren 1erako ekimenak.

Dantzak eta Durangon zein eskualdean dantzari jarduten dutenek beteko dituzte herriko kale eta txokoak; euren arteagaz beteko dute Durango. Entsegu lokal eta eskoletatik, kalera aterako dute dantza, bihar eta etzi.

Durangoko L'atelier dantza eskolak antolatu du asteburuko ekimena

Apirilaren 30ean goizean hasita, hainbat dantza agerraldi, askotarikoak, izango dira Durangoko kale kantoietan eta plazetan: Kriskitin dantza taldeak 11:30etatik aurrera Andra Marian eskainiko duen emanaldiak abiatuko du egitaraua, eta Udaletxeko plazan, San Agustin kultur-gunean, Ezkurdin eta Plateruenean izango dira egun osoan zehar emanaldiak.

Dantza klasikoa, euskal dantzak, funkia eta beste hainbat disziplinatako emanaldiak eskainiko dituzte dantzariak. ■ I.E.

Dantzaren nazioarteko egunaren harira egitarau zabala Durangon

Mundu guztiko herri eta hirietan apirilaren 29an ospatzen duten Dantzaren Nazioarteko Egunagaz bat egingo dute Durangon, bihar eta etzirako antolatu duten egitarauagaz



EMANALDIAK

Apirilaren 30ean

11:30ean, Kriskitin dantza taldea Andra Marian
12:00etan, Kriskitin dantza taldea

Udaletxeko plazan
12:30ean, L'atelier baleta (barra txikia)

San Agustin kultur-gunean
13:00etan, L'atelier baleta (barra handia)

San Agustin kultur-gunean
13:45ean, dantzarako material zozketa Ezkurdin

18:00etan, Flashmob-a Ezkurdin

19:30ean, Flashmob-a Plateruenean
24:00etan, Funky Festa Plateruenean

Maiatzaren 1ean

12:30ean, L'atelier baletako dantzariak
San Agustin kultur-gunean

13:15etan, L'atelier baletako dantzariak
San Agustin kultur-gunean

MUSIKA > SARIAK

Durangoko Musika Eskolako ikasle bi saritu dituzte Bilbon

Bilboko Crisostomo Arriaga kon-tserbatorioan apirilaren hasieran burutu zuten Euskadiko interpre-te gazteen lehiaketan saritu zituzten Durangoko Musika Eskolan ikasten duten Jone Erzilla eta Lexuri Armentia.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko gutxieneko adina dauka-te musikari gazte biek: 12 urte. Metalezko haize-instrumentuen espezializatean 12 eta 15 urte artekoen sailean bigarren saria eskuratu zuen Jone Erzillak, eta egurrezko haize-instrumentuen espezialitatean ohorezko aipa-mena Lexuri Armentiak.

Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak antolatu du Euskadiko Gazte Interpreteen Lehiaketa hirugarren urtez, eta 70 bat ikas-le aurkeztu dira aurtan. ■ I.E.

Erzillak metalezko haize-instrumentuen saileko saria jaso zuen

Armentiak egurrezko haize-instrumentuen saria jaso zuen

Izen ematea Maiatzaren 2tik 12ra

Pinondo Etxea | www.durango-udala.net

udala

topera

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Goi tentsioko linea

Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlanetik etengabe salatu dugu AHTak bai ekonomiaren bai energiaren aldetik eragingo duen xahuketa. Megaproiektu hau "garapenkeria" atsegin duen sistema kontsumista baten ondorioa da. Sistema horrek, "aurrera" egin ahala, inguruan duen guztia suntsitzen du lekuan lekuko gobernuen eta enpresariaren interes ekonomikoen arabera.

Halako azpiegitura erraldoi batek eragingo dituen ondorio ekonomikoez ohartarazi dugu beti, Euskal Herriarentzat gastu neurrigabe horri (9 mila milioi euro) aurre egitea etorkizunerako hipoteka izango dela salatu dugu, eta argi utzi dugu kalte ekologiko ikaragarria dakarrela. Hori gutxi ez, eta beste "ezusteko" bat; Red Electrica Españolaren (REE) arabera, "beharrezko" beste azpiegitura bat AHTk eragingo duen gastu energetikoari aurre egiteko: goi tentsioko linea bat egin nahi dute, 72 kilometro Araba, eta batez ere, Bizkaia eta Gipuzkoa zeharkatuko dituena. 400.000 watt garraiatuko dituen lineak 24 herritan izango du eragina. Ingurumenarekiko kaltea, noski, hasieran uste genuena baino larriagoa izango da, izan ere, AHT bera oso txikitzailea da eta orain gainera, beragandik eratorritakoen kalteak ere gehitu behar dizkiogu.

Linea horiek egiteak eta mantentzeak ingurumena suntsituko dute kableak pasatzen diren lekuetan: landareak moztu eta kendu egin beharko dituzte 71 metro luze eta 26 metro zabal diren dorreak jartzeko, bideak zabaltzeko eta azpiestazioak eraikitzeko. Horrek denak eragin izugarria izango du luraren eta landareengan, eta gainera oso arriskutsua izango da lineetatik gertu dauden etxeetako bizilagunen osasunerako eta segurtasunerako. Ez dezagun ahaztu horrelako lineek sortzen dituzten eremu elektromagnetikoek hainbat gaixotasun eragin ditzaketela, minbizia besteak beste.

Nabarmenezkoa da Durangaldean kaltetutako zenbait udalen hipokresia. Oraingoan goi tentsioko linearen proiektuarekin ados ez daudela diote, baina ez dezagun ahaztu politikari horietako askok AHT onartzen eta bultzatzen dutela eta zilegitasun osoa ematen diotela. Iurretan adibidez, lineak baserri bi kaltetuko dituela salatu du Iñaki Totorikaguenak, baina, antza, ahaztu egin zaio AHTk ere beste hainbat baserri duen eragina. Zornotzan ere AHTk baserriak kaltetzen ditu, eta David Latxaga alkateak elektrizitate linea berriaren bidea aldatzeko itxaropenik ez duela besterik ez dio. Halako agintariak ibilbidea lekuz aldatzeaz baino ez dira arduratzen, AHTk eta goi tentsioko lineak kaltetzen dituzten lekuetako bizilagunen arazoei benetan aurre egin ordez. Hau guztia "elite" batzuen interesei lehentasuna ematen dien politika txikitzailearen ondorio garbia da, eta badirudi ez dutela halakorik onartu nahi edo ez zaiela komeni. Gainera, linea honi aurre egiteko, guk

hainbat urtetan AHTren aurka erabili ditugun argudioak darabiltzate. Zer gertatzen da? Kalte horiek goi tentsioko lineak egiten dituen baino ez dira arduratzen, eta ez euren AHT miretsiak egiten dituen baino? Gainera, ezkutatu egin nahi dute bata bestearen ondorio zuzena dela? Ala hauteskundeak gainean ditugun honetan lehian dabilta hipokritago nor den, udaletako jarlekuak ez galtzeko?

Gure sistema kapitalistan ohikoa den legez, energiaren gaia ere errentagarritasun ekonomikoaren arabera neurtzen da, eta ez errentagarritasun sozialaren arabera. Hori dela eta, aurre egin behar diegu kontsumismo eta "garapenkeria" neurrigabeek sortutako beharrian artifizialei.

Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlana

Zorionak zilargin guztioi

Distira ederra atera diogu denon artean Zilar Asteari, benetan ere!

Badira bi-hiru urte plateruok herri-kulturgintza sustatzeko lanari buruz gabiltzala berbaz. Jakin dakigu askoren ahotik irten eta gutxiren belarritik sartzen direnak direla halako berbak. Geuk ere gurago ditugu ekintzak. Herri-kulturgintza diogunean Zilar Astea lako proposamenei buruz gabilta gu: herritarren artean antolatuz, herritarrek sortu eta herritarrei eskainitako kultur eskaintzaz.

Film labur lehiaketa, berbaldiak, mahai-ingurua, ikuskaria, dokumentala eta literatur eskola, umeentzako jolasak,...

Ehun durangar baino gehiago antolakuntzan eta sorkuntzan; mila eta bostehun durangarretik gora ekitaldiak jarraitzen; beste euskal herri batzuetako hainbat kulturgileak bidelagun,...

Ikastetxeak eta kulturguneak, elkarteak eta erakundeak, artistak eta kudeatzaileak, profesionalak eta amateurrak, helduak eta gazteak... Guztiak auzolanean. Batzuk borondatez eta besteak ere bai.

Eskerrik asko eta zorionak, berriro ere, guztioi!

Harrotasunez, esateko moduan gaude: ekarpen ederra egiten gabilta Durangori.

Umiltasunez, esateko moduan gaude: Durangoko Udalak gehitxoago hartu beharko luke kontuan Durangori egiten gabiltzan ekarpena.

Guk, betiko moduan, gure proposamenak sentitzen ditugun eta egiten dakigun moduan aterako ditugu aurrera: bidean batzen garen lagun guztiekin, gauzak maitasunez egiteak gozamenak dakarren segurantzia osoarekin, eta eskuratu ahal ditugun baliabiderik onenekin.

Ez diamante, ez perla, ez urregoririk... Alegiantzia baino ez dago hoberik!

Durangoko Plateruak

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Aitziber Irigoras
EAJ

Sinesgarritasuna

Egunak joan, egunak etorri, laster hasiko da hauteskunde kanpainaren epea. Mota guztietako argudio zein arrazoiak emon eta entzungo doguz. Zinez eskatzen dot eztabaida ur sakon eta ilunagoetan ez sartzea. Gorabehera politikoak ideien eta proiektuen munduan adierazi eta kritikatu beharra dagoela aintzat hartuta, egitate honek ez leuke aitzakia izan behar edozein eratarik kontra dagoena erasotzeko, alderdi batzuek oihutur horien errotuta izan arren, ez eta egungo legeria erabilita (hots, alderdiei buruzko lege zoritxarreko erabilita), Espainiako Gobernuaren (PSOE) eta enparauen (PP) hauteskunde interesei men eginez, demokraziaren oinarriko printzipioei maula egiteko. Fair play, britainiarren esanetan, hain zuzen.

Entzungo doguz, entzun be, zin-egite bete ezin egingo dabezan politikariak be. Erraza da edozer proposatzea botoen truk, norbera egiaztan jakin badakien gobernu-lanetan arituko ez dala. Esangura horretan, alderdi batzuei esker, arduragabekeriaren erresuma izaten ohi da hauteskunde garaia. Ahoa zabaltu eta edozer esan. Nork egin eta zelan ordainduko dan azaldu barik.

Bestalde, izango doguz, baita be, goi mailako ideietan eta argudioetan geratuko direnak. Arrazoizkoa da lantzean behin mendira igotzea, ikuspuntua zabaltu eta gure egunerokolarri esangura orokorragoa emoteko, egunean eguneko pauso xumeak jarraituz politiko nagusien testuinguruan murgiltzea. Alabaina, ariketa hori ezin da abiapuntu eta helmuga izan, goi-zerotik aurrera (eta aurrera) urratsez urrats eraiki behar dogulako. Eta horixe izango da EAJren jarrera: egiteko modukoak diren konpromiso arrazoizkoak hartu; orain arte egin dogun moduan, abertzaletasunetik egunean-egunean gure ahalegina jarri durangarren bizitzan hobetzeko; eta jarrera demokratiko leialari beti eutsi. Atzo, gaur eta bihar, hori da gure zin-egitea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
 2011ko apirilaren 29a - 10. urtea - 413 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KIROLAK >

Datorren urtean Durangaldeko hiru talde arituko dira Nazional B mailan

Sasikoak ezin izan dio Nazional A mailari eutsi; iazko denboraldiko postua berdintzea dute orain helburu. Mallabiak, ostera, Euskal Ligatik Nazional B mailara igotzea lortu du aurten



Maila galdu arren, bere jokalariek eginiko denboraldiagaz pozik agertu da Iban Urnieta entrenatzailea. Juanra De la Cruz

Datorren denboraldian eskualdeko hiru talde arituko dira areto futboleko Nazional B mailan. Kirol horretan, Durangaldeak ordezkariak izango dituen mailarik altuena izango da maila hori. Elorrioko Buskantaz gainera, Nazional A mailatik jaitziko den Sasikoa, eta igoera lortu duen Mallabia taldeak arituko dira bertan 2011/2012 denboraldian. Maila galduko duen zortzi taldeetako bat da talde durangarra; Federazioak Nazional A maila mugatu nahi izatearen ondorio dira jaitziera horiek. "Bage-

boraldiagaz; bere berbetan, asko ikasi dute jokalariek zein gainontzekoek: "Azken partiduetan proba ugari egin ditugu; harrobia asko landu dugu, eta hainbat motatako taktikak prestatzeko ere balio izan digute partidu horiek".

Azken urteetan harrobiari garrantzia handia eman dio Sasikoak. Urnieta entrenatzailearen berbetan, hori izango da etorkizunera begira durangarren erronka handiena. Sasikoak gazte mailako taldea du, eta aurrera begira, kadete mailakoa sortzea dute gogoan. "Taldea

Urnieta: "Datorren urtean lehenengo bosten artean aritzea da gure asmoa"

gaztetu eta elikatzeaz gainera, areto futbola sustatzea da gure helburua. Durangaldeko gazteei beste kirol alternatiba bat eskaini gura diegu".

Denboraldia amaitzeko bi jardunaldiren faltan, datorren denboraldiari begira daude durangarrak. Puntuak lortzeaz gain, maila ahalik eta itxura onena eskainiz agurtu gura dute. "Datorren denboraldian lehenengo bosten artean lehiatzea da gure helburua, eta horri begira ere prestatzen ditugu azken partiduak". ■ Aritz Maldonado.

Guztira, zortzi talde jaitziko dira Nazional A mailatik; tartean, Sasikoa durangarra

nekien mailari eustea gaitza izango zela, hala ere, gogoz saiatu gara" onartzen du Iban Urnieta Sasikoako entrenatzaileak. Federazioaren neurriez gainera, muga ekonomikoak ere badirela dio Urnietak. "Maila horretan lehiatzeko aurrekontu handia behar da". Maila galdu arren, Urnieta pozik agertu da bere taldeak eginiko den-



Igoera, mallabitarren denboraldi borobilaren saria

Urte bakarrean txiki geratu zaio Euskal Liga Mallabiari. Iazko denboraldian igoera lortu ondoren, mailari eustea zen mallabitarren helburua. Helburu hori aspaldi lortuta, goiko postuetan mantentzea izan dute gogoan; behin igoera ziurtatuta, denboraldia lidergoan amaitzea bilatuko dute mallabitarrek. Horretarako, gakoa izango da datorren jardunaldian Inter taldeari irabaztea. Euskal Ligako lehenengo bi taldeen lehia izango da hori. Gaur egun, denboraldia amaitzeaz dagoela, hiru puntuko aldea dago bi taldeen artean. Bestalde, datorren denboraldiari begira entrenatzaile bila dabiltza. Gai horri buruzko informazio gehiago taldearen blogean (mallabiaft.blogspot.com) agertzen da. ■ A.M.

Mugarri Eguna antolatu du Alpino Tabirak bihar goizerako

Alpino Tabira mendizale taldeak antolatuta, Durangoko mugarriak ezagutzeko aukera eskaintzen duen Mugarri Eguna ospatuko dute bihar. Udalak babestutako ekimen horrek mugarri horien erabilpena ulertzeko eta kokapena ezagutzeko aukera eskainiko dio ibiltariari. Landako kiroldegian hasi eta Santikurutza helduta, Mañaria erreka ondoan amaituko da. Guztira, hiru orduko iraupena izango du. Andra Mariako elizpean egin dute hitzordua, 09:00etan. Pinondo Etxean eman daiteke izena. Informazio gehiago www.alpino-tabira.org helbidean. ■ A.M.

Kulturalak Arenasen kontra jokatu du bihar

Bihar arratsaldean Kulturalak Arenas Club taldearen aurka jokatu beharko du Getxoko Gobela zelaian, 17:00etan. 35 jardunaldiren ondoren, Kulturala play off postuetan mantentzen da, 65 puntugaz; Beasainekiko, bosgarren sailkatuarekiko, zazpi puntuko aldea du Axier Intxaurreagatik gidaturiko taldeak. Arenas Club sailkapeneko zazpigarren postuan dago, 53 puntugaz. Eibar B taldearen aurka husna berdintzetik dator talde getxoztarra.

Aurreko jardunaldian 1-0 irabazi zuen Kulturalak Elgoibar taldearen aurka. Horri esker, play off postuetan mantentzen da Zornotza, Sestao eta Laudio gaz batera. ■ A.M.

R7 Kopak jokatu dituzte DRT eta Elorriok

Euskadiko Errugbi Federazioak antolatuta, Euskadiko R7 Kopak jokatu dira zapatuan, Arripausuetan eta Elorrioko San Roken. Guztira, hiru mailatan banatuta jokatu dira txapelketa horiek, eta zazpiko taldeen formazioan (R7) jokatu dituzte partiduak. DRT Senior A mailan lehiatuko da; Elorrioko errugbi taldea, ostera, Senior B mailan arituko da. Emakumezkoetan, berriz, Arrasatek eta DRT-k ostaturiko taldea arituko da. Lehenengo jardunaldi horretan, hainbat partidu jokatu beharko dituzte errugbi taldeek. ■ A.M.

Abian da, beste urte batez, Oizpe txapelketa

Oizpe pilota taldeak txapelketa hau antolatzen duen 9. biderra da. Lehenago "Txikito Mallabia" lege ezagutzen zen txapelketa hau



Gazteen artean pilota sustatzea ere bilatzen du Oizpe pilota taldeak.

Apirilaren 18an abiatu zen, bederatzigarrenez, Oizpe pilota txapelketa. Urtero lege, Berrizko Oizpe pilota taldeak antolatu du txapelketa Berrizko Udalaren laguntzagaz. 1970. hamarkadan Berrizen jokatzeko "Txikito Mallabia" txapelketaren ondorengoa da hau. Eneko Kanpo Oizpe pilota taldeko arduradunaren berbetan, txapelketa horrek zuen mailara heltzea da orain euren helburua. "Euskal Herri osotik heltzen ziren pilotariak parte hartzen zuten han; 300 pilotarik jokatzeko zuten". Antzeko jokalarik kopuruaz gainera, maila oneko pilotariak ere egongo dira aurtengo txapelketan. Kanpok baieztatutakoaren arabera, Berasaluze IX.ak, Bengoetxea VII.ak eta Rober Uriartek txapelketan parte hartuko dute, besteak beste.

Iazko moduan, hainbat mailako jokalariek parte hartuko dute; guztira, bederatziz mailatan lehiatuko dira pilotariak. Orotara, 250 pilotari baino gehiago arituko

Guztira, 250 pilotari inguruk parte hartuko dute Oizpe txapelketan

Berasaluze IX.a eta Uriarteren mailako pilotariak ere arituko dira

ko dira Berrizko pilotalekuan. Haur, kimu (A eta B mailak egongo dira) eta benjamin (A eta B mailak hemen ere) mailatan lehiatzeko 200 pilotari inguruk eman dute jada izena. Gazte horietako asko Durangaldekoak dira; hala ere, Azpeitia, Donostia eta Amurriotik datozenak ere egongo dira txapelketan.

Aurreko urteetan ez bezala, bederatzigarren Oizpe txapelketan buruz burukoan arituko dira pilotari guztiak; kadeteen, gazteen, 22 urtez azpikoen eta nagusien mailatan, lau t'erdikoan jokatu dute pilotariak.

Lehia ziurtatua

Kanporen arabera, txapelketa "erakargarria" izango da: "Profesionaletan jokatu duten jokalariek beheko mailetatik gogor datozen jokalariekin lehiatuko dira". Txapelketa erakargarriagoa egiteaz gainera, eskualdeko pilotari gazteentzako "aukera" bat izan dadin ere bilatzen dute antolatzaileek.

Seniorren partidurak martitzen edo eguaztenetan jokatu dituzte; "Gaitza da maila horretako pilotariak asteburuetan ekartzeko", dio Kanpok. Behe mailetako partiduek ez dute egun finkorik izango. Txapelketako finalak, ostera, Berrizko Sanpedroetan jokatu dira. ■ A.M.

Lehentasunezko Mailan egongo da lurretako

Artibairen kontra bana berdindu eta gero, igoera ziurtaturik du Vázquez taldeak

Jon Gurutz Vázquezek zuzenduriko taldeak itxaroten zuen baino lehenago lortu du denboraldi hasieratik bilatzen zuen helburua. Denboraldia amaitzeko bost jardunaldi geratzen direla, lurretakok igoera mate-

matikoki ziurtatu zuen Artibairen aurka berdinduta. Beraz, 2011/2012 denboraldian Lehentasunezko Mailan jokatu dute iurretarek. Adrian Abasolok partiduko azken minutuan sarturiko golari esker bana berdindu zuten Vázquez taldeak.

Banako berdinketa azkeneko minutuan lortu zuten iurretarek

Liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan lortu du igoera lurretakok

29 jardunaldi eta gero, lurretako Lehenengo Erregionaleko liderra da 69 puntugaz; denboraldi osoan ez du partidurik galdu, gainera. Bihar arratsaldean, Ermua taldearen aurka jokatu beharko dute iurretarek. Irabaziz gero, mesede handia egingo diote Zalduari. Hain zuzen ere, bigarren sailkatua da talde zaldibartarra, 59 puntugaz. Zalduak Uritarra taldearen aurka jokatu du, bihar. ■ A.M.



Denboraldi osoan ez dute partidurik galdu. Juanra de la Cruz

kirol errota

PREZIO BERRIAK!

36 euroatik fitnessa, aparkaleku pribatua eta edozein ekintzatan parte hartzeko aukera! APROBETXATU!

Ordutegi zabala:
Astelehenetik ostiralera 07:00etatik 23:00etara
Larunbat eta igandetan 07:00etatik 21:00etara

Informazio gehiago:
09:00etatik 13:00etara / 17:00etatik 21:00etara

www.jasokirolak.com

Jaso kirolak
Intxaurrondo, 54
48200 Durango • Tel: 94 621 60 21
kirolerrota@jasokirolak.com

- Gimnasioa
- Sauna
- Cycling bertualak
- Aparkalekua
- Hainbat ekintza:
 - Power pump
 - Ars Corpore
 - Kick Power
 - Cycling
 - Pilates
 - Wing Tsun
 - Kick Boxing
 - Integral Fit
 - Dantza
 - Wellness eta Fitness plana

Amarika garaile San Prudentzio klasikoan

Miota jaisten lorturiko abantailari esker, helmugara bakarrik heltzea lortu zuen gazteak

Kadete mailako San Prudentzio proba jokatu zen hilaren 25ean. Traña-Matienako jaien baitan antolaturiko proba honetan, Julen Amariak izan zen helmuga zeharkatu zuen lehenengo txirrindularia.

Miota igotzerakoan hautsi zen lasterketa; Miotako aldape-

Kadete mailako 73 txirrindularik parte hartu zuten klasikoan

tan sei txirrindularik osaturiko taldeak ihes egitea lortu zuen; ihes egindakoen artean Iosu Angoitia zegoen, baina jaitsieran erori egin zen.

Eraso erabakiorra

Geroago, Amariak erasoja eta ihes egin zuen; orduan hartutako abantaila nahikoa izan zuen helmuga lehenengo zeharkatzeko. 1:09:20 behar izan zituen Amariak 45 kilometroko ibilbidea burutzeko eta 14 segunduko aldeagaz irabazi zuen txirrindularitza proba hori. Guztira, 73 txirrindularik amaitu zuten proba araututako denbora barruan. ■ A.M.

Tabirakoko neska kadeteak Euskadiko txapelaldunorde

Donosti Basket taldeak irabazi zuen finala. Espainiako Txapelketan lehiatzeko jokoan zegoen txartela eskuratu dute bi taldeek

Espainiako Txapelketarako txartela ziurtaturik izan arren, final lehiatua jokatu zuten Tabirako eta Donosti Basket taldeetako kadeteek. Maila horretako eta junior mailako *Final four* deritzona jokatu zen apirilaren 16-17ko asteburuan. Kadete mailan, Tabirako eta Donosti Basket taldeek gainera, Araba eta Cora-

Corazonistas taldeari
62-44 irabazi zion
Tabirakok finalerdian

zonistas talde arabarrak aritu ziren lau txapelketan; liga erregularrereko lehenengo lau sailkatuak. Txapelketa donostiarrek irabazi zuten arren, bi taldeek maiatza amaieran Zaragozan jokatu den Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortu dute.

Finala jokatu aurretik, Corazonistas talde arabarrari aurre egin behar izan zieten durangarrek; 62-44 gailendu zen Tabirako. Etxean jokatzek asko lagundu zien durangarrei. Bi mailetak finalak, berriz, apirila-



Espainiako kadete txapelketan lehiatuko dira durangarrak

Ligan bezala,
donostiarren atzetik
amaitu du Tabirakok

ren 17an jokatu zituzten. Partidu osoan zehar berdindurik ibili eta gero, Donosti Basketek 50-57 irabazi zuen partidua. Asteburuko irabazle nagusiak donostiarrek izan zirela esan daiteke: bi mailetak txapelketak irabazteaz gainera, junior zein kadete mailetak taldeak Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortu dute. ■ A.M.

Herri Artekoan aurrera egin dute eskualdeko hiru taldeek

Mallabia, lurreta eta Atxondok aurrera egin dute Bizkaiko Herri artekoan. Portugalete, Lekeitio eta Bermeo, hurrenez hurren, hartu behar izan dituzte mendean horretarako. Joane-koan Portugaleten irabazita haizea aldeko zuten mallabitarrek; hala ere, hiru partiduetako bakarra irabazi ahal izan zuten etxean, senior mailakoa, hain zuzen ere. Tanto aldeari esker bigarren faserako sailkatu dira mallabitarrek. Atxondokoek eta iurretarek, berriz, joaneke zein itzuliko partidua

Durangok eta lurretak
elkarren aurka jokatu
dute bigarren fasean

irabazi dituzte. Horrenbestez, txapelketako bigarren fasera igaro dira hiru taldeak.

Txapelketako bigarren fase horretan, Durangoko taldea sartuko da lehen. Iurretaren aurka jokatu du, hain zuzen ere. Atxondok Urdulizen aurka jokatu du hirugarren faserako sailkapena; Mallabia, oster, Arrigorriagaren aurka lehiatu beharko da. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA

LEHENBIZIKO ERREGIONALA

Zaldia - Uritarra

Zapatuan, 18:15ean,

Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Ezkurdi

Zapatuan, 17:00etan,

Eleizalden

Berriz B - Lekeitio B

Zapatuan, 17:30ean,

Berrizburun

Extremeko - Ermua B

Zapatuan, 19:15ean,

Tabiran

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Allerru

Zapatuan, 19:00etan,

Landakon

BIGARREN MAILA

Gu Lagunak - Dantxari

Zapatuan, 17:00etan,

Landakon

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Urdona - Madariaga /

Narbarte - Diez

- Mendizabal - Landaburu/

Arrese - Lukin

Eguenean, 21:30ean,

Mallabiko pilotalekuan

OIZPE TXAPELKETA

- Bengoetxea VII -

Urdona

- Malax - Peñas

Martitzenean, 20:00etan,

Berrizburun

HERRI URRATS

laku bat munduan

MAIATZAK 8 SENPERE

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK



- Amaia Salazar
- Nukleo
ileapaindegia
dauka Elorrion

Tindagaiak, azal sentiberendako

Amaia Salazarrek ileapaindegia dauka Elorrion, eta gaurkoan tindagai berezi batzuen inguruan berba egitera datorkigu. Azal sentiberari begira prestaturikoak ei dira. Narritadura murrizten dute.

Zer dela eta sortu dira azalari begirako tindagai berezi hauek?

Gaur egun, gero eta azaleko arazo gehiago izaten ditugu. Orain arteko tindagaiak hainbat erreakzio kaltegarri sortzen zituzten sarritan: deskamazioak, azkura... Egoera horren aurrean zenbait ikerketa egin dira, eta horren fruitua dira tindagai hauek. Azkenean lortu dute produktu berria kaleratzea.

Zertan oinarritzen dira? Zergatik diogu onuragarriak direla?

Alde batetik, amoniako bako produktua dira, eta, bestetik, "Senso Calm" izeneko teknologia berri batez eginak daude. Dermatologoek aztertutako teknologia bati buruz berba egiten ari gara.

Alergien kontrakoa ere ba al da metodo berri hau?

Ez, ez da anti-alergikoa. Kontu handia izan behar da horregaz, izan ere, azal sentiberentzako bakarrik pentsatutakoa da.

Zer alde dago bata eta bestearen artean?

Hasteko, alergiekin eragindako erreakzioak narritadurenak baino gogorragoak izan ohi dira, normalean. Narritadura momentuan bertan sortzen da, eta ez sustantzia espezifiko bategatik. Kontaktuzko alergia aplikazioa eta geroko 24 edo 48 ordura sortzen dira, orokorrean.

ESTETIKA ZENTRUAK



BAUTISTAN BI LAGUNENTZAKO EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARITZEN JARRAITZEN DUGU **OPARIA ZUZENEAN**

1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK

Bautistan inoiz ez genizuke ezer oparituko
lehenago geuk probatu barik.
Zure lekuan geu joan gara sasoiko lehenengo itsas bidaiara:
BARTZELONA-TOULON-SARDINIA-BARTZELONA
eta ziurtatu egiten dizugu esperientzia
ZORAGARRIA izan dela
ZATOZ ETA FROGATU EGIZU

Jon Ugarte

Bautista altzariak eta dekorazioa


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

IBERO cruceros-en laguntzarekin:



Eguzki sartzea. Sardiniatik itetean.
2011ko apirilaren 2a. 20:00.



Popako hautzaindegia. Bartzelonatik itetean.
2011ko martxoaren 31. 18:00.

Zurekin ospatu gura dugu gura 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

www.bautistamuebles.com

94 672 77 00

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. iteera) | Urbitarte poligonoa 4. partzela, 2. pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaiak kopuru jakin bat amaitu artekok eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketa ez da baliagarria eskaintza honetarako

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntsarutzen. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eskegitokiarekin, balkioa, garajea eta trastelekua. la berria. Oso polita. Tel.: 615 007 216

Atxondo. 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du. Berriztua eta altzairuz hornitua. Tel.: 628 787 835

Berriz. Duplex zoragarria. 118m². 1. sol.: sukaldea, komuna, egongela, despentsa eta balkioa. 2. sol.: 3 logela eta 2 komun. Trasteroa eta garagea. 327.000euro. Deitu arratsalde: 680907666.

Durango. 98 m2. Oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta komunitarioak. Altzariz betea, berogailuaren galdara berria, hormako lau ar-mairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zoria aldatuta. Garaje. Igerilekua. 655 704 684

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpora. Altzariz hornituta. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Guztiz berriztuta. Kanpotik (06): faxtada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (07): parketa, sukaldea, gresa, berokuntza, kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. 179.000 euro. 607 715 353.

Durango. 94 m2. Herriko gudariaren plaza. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, eguzkitsua eta bista ederrekia. 336.000 euro. 615 760 801.

Elorrio. 65 m2. Etxe berria buzkantz kalean. 2 logela, komuna, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Ilogailua. Kokapen ona eta eguzkitsua. Prezio ona. Tel.: 94 682 12 34

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 20:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

Mañaria. Bi logela handi, balkoidun egongela eta sukalde handia. Eguzkitsua. Aluminiozko leihoak, elondo egurra. Mendira. Toki lasaian. Garaje itxia. Bi solairu. Etxea guztiz hornitua geratzen da. Tel: 615 765 646 (Jabi).

Zaldibar. 300 m2-ko base-rria berriztuta. 28.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625 705 997

Zaldibar. 67 m2, 3 gela, bainu-gela bat, sukaldea, egongela, balkioa eta igogailua. Tel.: 94 655 03 58

ERRENTAN EMAN

Berriz. Pisua alokagai (abalarekin). 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Herri-erdian kokatua. 688 685 429

Durango. Logela handi bat alokagai lbaizabal auzunean. Etxe eroso eta berria. Tel.: 652 865 780

Elorrio. Salgai edo alokagai (abalarekin). 74 m2. 3 logela. Erdialdean. Trastelekua. Estreinatzeko. Tel.: 634 457 201

Elorrio. Toki onean, erdialdean 100 m2-ko pisua alokagai. 3 gela, ezkaratza, saloia, 2 komun, igogailua. Deitu: 605 751 273 (arratsalde).

Zaldibar. Alde zaharrea. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Estreinatzeko. Tel.: 660 458 756

Zaldibar. Apartamentua, bikote batentzako aproposa. Deitu arratsaldeko 20:00 etatik aurrera: 946827369

ERRENTAN HARTU

Durango. Neska langilea Durango edo lurretan alokatzeko pisu bila. 667 923 891

lurreta. 2 gelako etxea alokatu nahi dit. Ilogailuarekin. Tel.: 665 702 203 (Idoia).

OPORRETAKO ETXEA

ERRENTAN EMAN

Conil (Cadiz). Etxea alokagai aste santurako edota udarako. 3 logela eta garajea. Telefonoa: 653 733 457

Ramales (Kantabria). Txaleta alokagai aste santurako edota udarako. Telefonoa: 653 733 457

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Durango. Pisukide atsegin baten bila. Tabira auzoan kokatuta dagoen duplex-a. Etxea berria eta eroso. Logela bikoitza eta handia terrazekin. 310 euro/hile. Tel.: 699 501 290/ 635 266 251

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Atxondo. 40 m2-ko lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. Tel.: 686 137 123

Elorrio. 350 m2-ko pabilioia salgai edo alokagai, 60 m2-ko bulegoarekin. Prezio interesgarria. Tel.: 634 457 201

GARAJEAK

SALDU

Berriz. 42 m2-ko garaje itxia. Argiaren eta uraren instalazioak iaz eginda. Komuna eta txoko txiki bat dauka, sukaldeagaz. 3 kotxerentzako lekua. Tel.: 615 752 136

Durango. Erdialdean, Tronperri kalean. Itxia. Saltzeko premia. Tel.: 686 734 451

Durango. Garaje itxia salgai Tronperrin. Tel.: 628 787 835

Elorrio. Garaje itxia Berrio-Otxoa kalean. 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje plaza alokairuan herri-erdian. Tel.: 619 187 799.

Durango. Garajea alokagai San Inazio auzunean, Produ-san. Tel.: 635 743 624 (Iñaki)

Elorrio. Garaje itxia, kotxea eta trasteentzako. Nizeto Urkizun. 660 45 87 56.

Elorrio. Anduetxeta kalean, garaje itxia. Tel.: 605 721 273 (arratsalde deitu).

Elorrio. 40eurotan, kiroldegiko garajea. 2. solairuan, plaza irekia. Tel: 687740449

ERRENTAN HARTU

Berriz. Garaje itxi bat behar da kotxea eta txakur txiki batentzako. 94 622 57 24 / 680 509 532. Izaskun / Jose Mari.

Elorrio. Garaje baten bila nabil bi motore sartzeko. Tel.: 659 304 024.

Teknologia

INFORMATIKA

SALDU

Nintendo wii salgai. Osa-garri askorekin: mandoak, nunchakuak, wii fit tabla... Segurtasun kopiak irakurtzen ditu. Tel.: 627 102 512.

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen ditut. Etxez etxe joaten naiz konpontzen. Konfiguratu, birusak kendu... Arin eta merke! Tel.: 650 172 285

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua boliviako eskoletara. Or-Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kaina-beraren bitartez bialduko dugu boliviako bigarren mailako eskoletara. 655 717 666

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska euskaldun eta ikaslea asteburuetan ostalaritzan lan egiteko prest. Tel.: 646 841 206.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Haur hezkuntzako hezitzaile euskaldu-

na eta arduratsua umeak zaintzeko prest. Tel.: 666 197 568

Durango. Neska euskalduna, arratsaldez edo aste bukeratan umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 635 204 532 (mezua utzi)

Durango. Pertsona nagusien zainketan interna modura, gauetan edo asteburutan lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edo beste edozein lanetarako ere. Esperientzia. Erreferentziak. 679 769 921

Durango. Neska euskalduna arratsaldetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 690 682 512 (Oihana).

Durango. Garbiketarako, jate-txeetako sukaldeetarako, umeak zaintzeko edo dendaria modura lan egiteko prest. Tel.: 619 676 044

Durango. Neska gazte euskalduna arratsaldeen umeak zaindu zein klase partikularrak emateko prest. Telefonoa: 695 706 227

Durango. Garbiketarako, ume edo nagusien zainketarako lan bila. Esperientzia. Tel.: 638 437 901

Durango. Neska euskalduna pertsona nagusiei lagundu edo umeak zaintzeko, goiz edo arratsalde. Tel.: 94 658 33 32 edo 688 676 588

Durango. Erreferentziadun neska pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest, baita etxeko, portaletako zein tabernetako garbiketarako. Lanaldi osoan, interna edo orduka. Tel.: 620 828 579

Durango. 28 urteko neska goizez umeak zaindu edo garbiketa lan egiteko prest. Tel: 665 717 458

Elorrio. Neska gaztea eta euskalduna arratsalde umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten. Esperientzia eta autoa. Tel.: 626 196 885

IRAKASKUNTZA

Durango. Telekomunikazio-etako ingeniari teknikoa matematika, fisika eta kimika (DBH) klase partikularrak emateko prest. 680 581 215.

Durango. Haur hezkuntza ikasten dabilen mutil euskalduna klase partikularrak eman edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 685 702 177

Durango. Mutil euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 667 24 51 49.

